

### ZIENTZIAK ETA LETRAK BAT EGINDA DESKRIPZIOAN

1. Zientziek eta letrek erroan amankomunean duten zerbait topa ote daiteke?. Erantzuna baiezkoa da, deskripzioa da, lan oso astuna horretarako dohainik ez duenarentzat. Niretzat. Ni klasizista naiz, eta hor ikasi dut deskripzioa dela arte oren esentzia, zerbait oso azalekoa ikusten denez, eta beti dena hobegarria. Baina deskripzio bat egiteko, paperean adibidez, edo ordenagailuko testuen programan, berba ego-kiak eduki behar dira momentu oro, eta niri ez zaizkit etortzen, pensatzen geratzen naiz takian eta potian eta desastre hutsa naiz, demente ez naizen arren. Ez ditut gauzen izenak ondo ezagutzen. Ez dut musarik arteetan inspiratzen naue-rik, eta poeta izateari utzi egin diot publiko faltan, baina ba-tez ere lotsaz.

2. Pentsiodun egin eta gero, urrutiko unibertsitateetan sartu nintzen filosofiako karreran. Eta hor hobeto moldatzen naiz. Gehiago da zientzietako diziplina, nik zientzien zientzia ere dela erraten dut, zientzietatik bereiziz. Egiaren aldeko lana, ikerketa, detektibearena (hala nola, psikoanalisian), zerbait oso azalekoa, eta zorrotza, eta sakona. Baina azala da ikertzen dena; guztia, materia, azala bezala baita ageri begietara, forma bezala. Eta ni formalista naiz, eta hor topatzen dut egiazko sa-kontasuna.

Kausa materialean gaudela ezinezkoa da unibertsal bihurtzea, baina kausa formalera (abstraituz) salto egiten dugunean hor jada, baldintza batzuekin, bada posible pixka bat (triangeluen kasu nabarmena, adibidez). Horregatik erraten ahal da unibertsalak badaudela (errepasa dezagun predikatuen logika, logika formalean estudiantzen dena, batek pensa dezake axiomatikoak ere badirela, hain baita logiko eta sinplea). Baina kosmos material honen ezagutza unibertsala iritsezina da, indukzioaren problema da. Kuantifikadore partikularretik kuantifikadore unibertsalerako bidea, axiomatikoak ez bada, guztiz tratatua da, eta hori da indukzioa errepresentatua, formalizatua, predikatuen logikan.

3. Lehen erran dut klasizista naizela, baina horrek ez dakar nik gerra unibertsal bihurtzen dudarik. Klasiko grekolatinoak irakurriak ditut interes handiarekin. Nietzsche lehenbizi irakurri nuenean iruditu zitzaidan hura zela, haren estiloa, ikasia nuen hoberena. Eta harek ematen zuen bibliografian grekolatinoak zeuden batez ere, zerbaitengatik zen filologo klasikoa, filosofo baino gehiago. Eta hain onak ziren ezen engainatu egiten zuten, eta nik unibertsal bihurtzen nuen gerra, eta unibertsitatean bi urte ere egin izan ditut judoan, eta karabina bat ere eduki dut eta “tiro praktikak” egiten nituen mendian.

Gerra, fenomeno bat oso azalekoa, hala nola deskribatzerakoan, Homerok egiten duen moduan, poetikoki, pintura bat ezin hobea bertso errimatuetan, gerra eta gerraren ondorioak: tragediak. Arte maximoa kultura orientalean.

4. Kultura klasikoa kultura orientalaren barruan kokatzen dut nik, kapitalismoa ere (hori da nire teoria; arrazoia: dene-tan joera ekonomiko akumulatiboa nagusi) . Kultura klasikoa kultura orientalaren bururatzea da, haren espresiorik lortuena. Eta horregatik ematen du unibertsala ere badela, baina ez da hori, hori espejismoa da. Arte klasikoa deskripzioetan hobere-na da, ez dago dudarik, baina deskripzio bat, logikan, logika

formalean, predikatuen logikan, kuantifikadore partikularra da, kuantifikadore esistentziala, eta hortik, filosofia naturalean, ezin bihurtu daiteke unibertsal, ezin daiteke deskripzio material soil batetik kuantifikadore unibertsala sartu (indukzioaren problema hori da, aristotelismo aktualizatu batean ). Hori da nire teoriarik inportanteenetakoa (inportanteena Jesukristoren signoen ikerketa). Eta unibertsala ez bada ere, gehien gustatzen zaidan artea da, duda izpirik gabe.

5. Literatura, poesia, klasikoa irakurriz (Rimbauden moduan ardangeletan gehiago palazioetan baino) ikasi dut, hain zuzen ere, artea deskripzioa dela. Errepresentazioa. Edo Aristotelesek dioen moduan, mimesis delakoa. Eta zientzia ere deskripzioetatik, gaur egun ere, esperimntuen deskripzioetatik, unibertsal bihurtutako hipotesietatik sortzen eta garatzen da, eta zientziaren garapen berriak sortzen ere dira unibertsal bihurtutako tesiak partikularizatzean, eta deskribatzen ahal diren modu aunitzetan. Beraz, hara hor artea eta zientzia bat eginik, konplementarioak izatea inolako kontraktasunik gabe. Zientzia egiteko nik erranen nuke ezinbestekoa dela formalizatzea (abstraitzea), hasteko. Ikertzen hasteko. Hortik zientziaren eboluzioa izatea infiniturainokoa. Zientifismo hutsa galbidea da. Materialismoak admiratu egiten du bere aurrerapenekin, baina akats hori du, ezin unibertsaltasuna iritsi. Iragakorra baita kosmos material honetako guztia.

6. Zientziarik garbiena, beharbada, historiako deskripzio hutsa daiteke, teorizazio gabekoa. Narrazioa. Baina hori ere ez da libratzen aktualizatzetatik. Zehaztasunen bilatzeak hobeto narratzeko infinituan du amaiera, inoiz ez guretzat, giza-joontzat. A posteriori ere defizienteak gara.

7. Arestian erran dut Nietzsche izan zela nire bizitza literarioan, edo hobeto erranda, filosofikoan, gehiena, gaztetan, unibertsitatean, ezin hobea ere iruditu zitzaidan, baina, hala ere, pentsatu nuen gainditu behar nuela. Gainditu!. Filosofia

disziplinakin estudiatzean eskolastikan gainditu dut, gainditua omen dagoen eskolastikan, iluna omen dena. Zeren borondatea ez baita dugun bakarra gure arrazoiari, eta inportantea bada ere, ez da unibertetsala, ez da fenomeno unibertetsala. Cervantesen don Kijote eroak hobe egingo zuen bere herrian lasai-lasai geratu izan balitz, baina bere aisia larregietan egindako irakurketen ondorioz abenturetara atera zen, male-ruski berarentzat, eta bazterren barregarri egin zen. Eta berdin gertatzen da borondatearekin, irakurketak dira sarritan horren kausa nagusia, Nietscheren kasuan bezala. Eta irakurketak ez dira denak onak; engainosoak ere badaude. Eta ni ere jausia naiz irakurketa “askatzaileetan” (Nietscheren lehen liburua, tragediaz, “la bella apariencia”) eta ausartu nintzen, urteak igaro eta gero, neska bati nire maitasuna, egiazkoa, deklaratzera, ezetza jaso; nitaz bastante ahaztuta zegoen. Unibertetsitatean nengoela. Eta neska askori, nire lotsa handiak bihurtuz, deklaratu naiz harez geroztik, niretzat moduko batekin geratu naizen arte, katolikoa dena. Eta hor hondoratzen da nire barkua, portu definitibora iritsirik (emakumeen aferetan, jakina). Beste denekin maitasuna baino fantasia amodiozkoa gehiago izan da, ezkondu naizenakin ezik, zeina atzerritarra zen, orain, eskontzaz euskalduna ere bada. Hori, fantasiarena, psikologo batekin ikasi nuen. Eta holako amodio asko egoten dira, portu definitibora iristen ez direnak.

Erran behar dut nik sekula ez dudala gaizki hitz egin eza-gutu ditudan neskez, emakumeez, nahiz eta asko sufritu dudana, eta erridikulo ere egin dudana, psikologia dudalako era eskasekoa.

8. Eta Nietschek, Shopenhauerrek bezala, teorizatu zuen genioaz. Baina hori ere fantasmada bat da, edo hobeto erranda, deabrukeria. Guk dohainak ditugu, Espiritu Santuak banatzen ditu nahi duen moduan eta nahi duenari. Eta genioa edukitzea, haserre egotearen modukoa da, baina etengabe, eta hor gihar ziliarraren, betartea, uzkurtzea da, besterik gabe.

Baina gu gehiago gara mantsoak, ardiak bezalakoak, gregarioak. Ni bai behintzat, (eta bakartia naiz, hara hor itxurazko kontraesana). Eta Jesusek ere ardiekin konparatzen gaitu hainbat parabolatan eta esanetan. Eta ardi galduaz ere berba egiten du. Karmeliten bitartez banaiz pixka bat soziabilea, zeren publikatu egiten baitut karmelitei esker, duda barik. Euren euskarazko aldizkari batean, aldizkari honetan, irakurle.

9. Eta klasizista naiz eurak izan zirelako deskripzioaren artean nagusi, eta gehien gustatzen zaidan artea klasikoa da, nahiz eta horregatik ikasia dut ez unibertsal bihurtzen deskripzio bat, aurretik ondo estudiatu eta ikertu gaberik. Formalizaturaz gero unibertsal bihurtzea errezagoa daiteke, nahiz eta ezinezkoa den aunitzetan; ariketak badaude liburu espezializatuetan, baina ezinezkoa da gehienetan kasu axiomatikoetan izan ezik (triangeluaren kasua adibidez). Pixka bat pensakor geratuz diot nik, intuizioa baita.

10. Kultura orientala da izan diren kulturetan gaiztoena, hori egia da, baina badu zerbait ona, hots, hor garatu dira arteak eta zientziak ikaragarri, formakuntza profesionaleraino eta unibertsitateetaraino, halako lanaren kultura bat oso handia. Eta ni kultura-aldaketa baten aldekoa naiz, egia da, baina hori ere badut aintzat hartzen orain, eta hemendik aurrera. Beraz, ez nago ezer gutxi egin dutenen alde ere ehuneko ehunean, “milenioak” ere mantendu direnak igual-igual, progresorik gabe lanik ez zutelako egiten, eta hobeak moralki badira ere, eta badira, agian lanaren kulturarik ez dute izan. Eta hor birtuosoak ez dira izan, historiak erakusten duenez. Baina akats horrek ez dio inori eskua ematen indigenak akabatzeke, basati deituz, edo gizajo bihurtzeko. Etikan progresatzeko eskarmentu asko ukan dezakete.

Kultura orientalean egiten badugu halako historia bat kultura horrena, lana egin da, baina ez da izan lanaren kultura sanorik zegoelako, lanaren kulturaren kausa hor da kondizio

estremoetan hasi eta bizi zirelako kultura horren hasieran, egarria, gosea eta esklabismoa ere, eta holakoak izan direlako da (heroiak pribazio mota orotara eginak izaten ei dira, adibidez, Plutarcon), eta ni lanaren kultura baten aldekoa naiz, non justizia egiten den, lana egiten duenari saria. Eta pribazioa ez da zertan izan basamortuetakoa edo holakorengatik, eta bai helburuaren erlazioan. Hori erakutsi beharko litzateke oinarritzko heziera orokorrean. Lana sekula ez zaigu faltako, pixka bat buruakin pentsatuz gero.

Jainkoaren legea errazago bete dadin nahi dugunok problema baten aurrean gaude. Orain arteko teoriek zerbait falta dute. Utopikoak dira, akastunak. Eta lanaren kultura bakarra (erlijiosoa alde bat lagatzen dut orain) ezagutzen duguna da kultura klasikoan teorizatua izan dena, Plutarco delarik maisu handi bat. Eta kultura orientala ez bada unibertsala, horregatik ezereza ere ez da. Aintzat hartzeko modukoa, eta estudiatu beharrekoa ere bada. Kultura bat desarroilatua bere hasieretan urritasunezko baldintzetan, eta ezjakintasuna ere bada urritasuna. Kultura guztietatik dago zer ikasia, orientaletik ere bai. Beti ere erremedio bila.

11. Nik, kristau bezala, kultura kristau baten alde egingo nuke. Baina hori iritzi partikular bat da, nirea, hori dioste atoeok, marxistek, erlijioa nire gai pribatua dela, eta ez nago ados, erokeriarik ere ez badut nahi egiterik. Eta ematen dudanean nire proposamenaren zergatia, nire filosofia egiten ari naiz. Kultura orotan joera dago unibertsaltasunerakoa, ezinezkoa da kosmos material honetan, eta soilik detektatzen dut halakorik historiako Jesus personaian, signoak egin zituena. Eta horrela frogatzen zuen zioena, predikatzen zuena, egia dela. Eta signo bat analizatuz ikasten da Haren baitan ezagutza unibertsala badela. Horregatik da nire proposamena kristau kultura baten aldekoa, nazio guztiak horretara doazelako, jakin edo ez. Globalizazioaren garai honetan agian hobeki ikusiko da. Denoi gustatzen zaigulako, berez, jakitea. Eta ez

gara iristen ezagutza unibertsalera geure kabuz, Jesusen ahala da hori, eta fidatu behar dugu Harekin. Nik gehiago ezin dezaket erran, fidagarria dela nire Jauna. Ni baino gehiago, eta saiatzen naiz egiari hur ematen.

12. Beste aldetik, erlijio kristaua ez da gizonek asmatua, baizik eta historian zehar errebelatua, hasieran gizon bati, gero haren ondorengoari, eta gero humanitate osoari. Ez du gizonak asmatu. Iniziatiba Jainkoaren baitan dago, hortik signoez lagunduta etortzea. Eta Haren baitatik datorkigu, eta gu libre gara onartzeko edo ez. Edo heresiak asmatzeko ere, zeren zorrotza ere baita gure Aita, eta misteriotsua (lasaitzeko erran behar dut sinisten dudan misterioa santua dela), idazten dugunondako adibidez. Ez gaitezen izan besteen oztopo-harri. Eta bagara barkamena eskatzen jakin dezagula.

*Roman Garmendia*